

HEZIREN BATZORDE IRAUKORRA

PARTAIDEAK:

- Aloña, Oihane, Miren, Oier eta Irati

LANDUTAKO GAIK:

1. Hitzaldi sortaren balorazioa
2. Proiektuen jarraipena
3. Herri-olako aurrekontuetan Heziri egokitutakoaren inguruko hausnarketa

1.HITZALDI SORTAREN BALORAZIOA

Interesgarriak izan badira ere, oso jende gutxi gerturatu da.

2.PROIEKTUEN JARRAIPENA

LUDOTEKAREN INGURUKO HAUSNARKETA

Aurreko baten Guraso Elkarte eta Heziko partaideak bildu ziren baino ez dute jarraipenik izan. Otsailaren 4ean berriz bilduko gara blokeoa gainditu eta aukera ezberdinak aztertzeko

OIENEZ ESKOLARA PROIEKTUA

Aurreko astean izandako hitzaldian uste baino zalantza gutxiago argitu ahal izan ziren. Hala ere, martxan jarriko dira.

Hurrengo pausua, eskolarekin hitz egin eta aste batez ikasleek eskolara joateko erabili dituzten bide edo erak bildu eta informazio bilketa egitea izango da.

Horrez gain, diru laguntza jasotzeko bete beharreko baldintzak aztertzen jarraituko dute

FRONTOI AURREKO EREMUAREN EGOKITZAPENA

Eremu horretako erabiltzaile nagusienekin bi bilera egin dira dagoeneko. Bertan, Guraso elkarte, Haurreskolako gurasoak, nerabeak, haurrak, eskolako irakasleak eta jantokiko langileak biltzen dira.

Lehenengo bileran, kolektibo bakoitzak bere sektorean eremu horren inguruan duen iritzia biltzeko. Gurasoen iritzia jasotzeko galdetegiak bidali ziren (Haurreskolakoek paperean eta Guraso Elkartekoek emailez); nerabeek euren asanbladan gaia landu zuten; irakasleek batzar baten gaia landu zuten; eta jantokiko langileek euren artean hitz egin zuten.

Bigarren bileran, informazio guzti hori aurkeztu zen eta eremu horren diseinuari ekin zitzaion. Hurrengo batzarrean, martxoaren 15ean, kolektibo bakoitzak eremu hori egokitzeke proposamenak aurkeztuko ditu.

HAURREN ASANBLADA

Herriko haur guztiak elkartzeko eskolak eskaintzen dituen aukera onak aztertuta eta eskolan talde elkarreragileetan herritarrek duten parte hartzea kontutan hartuta, haurren asanbladak egiteko eskolan egon daitezkeen aukerak aztertzen ari dira.

Bestalde, haur zein nerabeen asanbladetan jolas parke berria sortu edota dagoena egokitzea proposatu zuten eta egun aurrekontuaren zain egon dira, horren arabera dauden aukerak zehazten joateko. Egund aurrekontua ezagututa zehaztasunetan sartzen hasiko dira.

3.HERRI-OLAKO AURREKONTUETAN HEZIRI EGOKITUTAKOAREN INGURUKO HAUSNARKETA

Ikasturte honetan dirua beharko dugula aurreikusitako proiektuak frontoiaren aurreko eremuaren egokitzapena (autobus geltokitik eskolara doan bidearen egokitzapenarekin batera), haur eta nerabeentzako jolas parkea sortzea edo sortutakoa moldatzea eta nerabeek autogestionatutako aisialdia garatzea izan dira. Horrela, lehen biek duten kostu altua kontutan hartuta Herri-olatik jasotako 40.000€ak gutxi gora behera erdi bana banatzea adostu da; eta nerabeentzako kopurutxo bat ere gordeko da

Hurrengo pausua proiektu hauek gehiago zehaztea eta aurrekontu zehatzak osatzea izango da.